



MUSIKA

Sentimendu hutsa eta ahots festa



OLBE



OLBE

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBERen 2023/2024 denboraldia amaitu da, publikoak beti espero duen tituluarekin. Mila aldiz entzun arren beti sentimendu biziak pizten dituen opera da Pucciniren maisulanetako bat. Gainera, oraingo honetan, primerako bakarlariez gozatu ahal izan dugu; antzezpena benetako plazer bihurtu dute.

Baina, horretaz guztiaz gain, hirugarren elementu batek bereziki asebeten nau: eszenaratzea bertsio klasikoan izan da, jatorrizko garaian kokatua eta alferrikako distortsiorik gabekoa dela. Non-bait irakurri dut oso publiko klasikoarentzat egokia izan dela bertsio hori, baina agian ez dela oso bizigarria izan ezagutza zabalagoa duten ikusleentzat. Nik justu kontrakoa esango nuke. Operan mila distorsio ikusi ditugunok, itxuraz, operarekin harremanik izan ez dutenengana hurbiltzeko; opera *almodovarizatzen* ikusi dugunok -zuzenda-

riari errespetu guztia- klasizismora, sinpletasunera, musikaren egileak eta libretoaren egileak bere garaian planteatu zuten jatorrizko esentziara itzuli behar dugu.

Oraingo honetan, Pucciniren ideia originala bere elementu guztietan biltzen duen *Bohème* bat ikusi eta entzun dugu, eta horregatik antzezipen horrek jatorrizko zentzu osoa du.

Hasieran aipatu dudan bezala, antzezipenaren gauzarik garrantzitsuenak ahots bikainak izan dira. Zalantzarik gabekoa, gaueko izarra Miren Urbietta-Vega izan da. Soprano donostiarrak Mimiren pertsonaia ondo menderatu du. Tinbre ederreko ahotsa du, indartsua, eta emisio dotorekoa. Pozgarria izan da soprano entzutea, erregistro guztietan perfektua izan baita. Une zoragarriak izan ditu. Azpimarratzekoa da *Mi chiamano Mimi* aria. Dena den, une oro maila oso ona eman du.

OLBEk antolatutako *La Bohème* opera, Puccinirena. Bilbao Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Pedro Halffter. Bilboko Operaren Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. Leioa Kantika Korala. **Zuzendaria:** Basilio Astulez. **Eszena zuzendaria:** Leo Nucci. **Bakarlariak:** Miren Urbietta-Vega (sopranoa), Celso Albello (tenorea), Manel Esteve (baritonoa), Marina Monzó (sopranoa), José Manuel Díaz (baritonoa), David Lagares (baxua), Fernando Latorre (baxu-baritonoa), Aitor Garitano (tenorea). **Lekua:** Euskalduna Jauregia. **Data:** maiatzaren 24a.

Era berean, Celso Albello tenore kanariarrak pertsonaia pucciniarrei primeran egokitzen zaien ahots bikaina duela erakutsi du. Bere aria *Che gelida manina* gozamena izan da, baita Mimirekin batera antzeztu dituen duoak ere, adibidez *O soave fanciulla*. Albelok agudo bikaina du eta segurtasun handia kantuan. Balio segurua da, dudarik gabe.

Gainerako bakarlariek maila ona eman dute. Marina Monzó sopranoak *Musetta* dotore eta bokalki bikaina egin du. Manel Esteve baritonoak ahots orekatua eta aktore-gaitasun handia erakutsi du. José Manuel Díazek, David Lagaresek, Fernando Latorrek eta Aitor Garitanok maila bikaina erakutsi dute, baita ere. Eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa paper ona egin du. Beharbada Pedro Halffterrek markatutakoak *tempi* ohi baino motelagoak izan dira, baina ez dio edertasunik kendu osotasunari, eta agian itxura araztuta eta sentimentalagoa eman dio. Gustatu zait. ●